

Foru Aldundiak ia 3 milioi euro bideratuko ditu Errepideen Foru Sareko bidezorua konpondu eta hobetzeko

Gasteiz, 2025eko martxoaren 11.- Arabako Foru Aldundiak aurten ia hiru milioi euro inbertituko ditu, denbora iragatearen ondorioz eta azken negu honetako elurraren eta izotzaren eraginez kaltetutako errepide zatien zorua konpontzeko eta hobetzeko. Inbertsio horren helburua da Errepideen Foru Sarea mantentze egoera onean egongo dela bermatzea eta errepideetako segurtasuna indartzea.

Foru Gobernu Kontseiluak bi kontraturen lizitazioa onetsi du gaur; guztira, 2,9 milioi euro: lehenengoa, 2,28 milioi eurokoa, Arabako hainbat errepidetan errodadura geruza birgaitzeko eta berritzeko, eta bigarrena, 623.297 eurokoa, hartxintzar garztada bidez azaleko tratamenduak egiteko bigarren mailako sarean.

Bi kontratu horien bidez finantzatutako zoruak konpontzeko eta hobetzeko proiektuei kontserbazioko eta mantentze lanetako urteko programen kontura ekitaldi honetan gauzatuko direnak gehitu behar zaizkie.

Kontratu hauen lizitazioaren unean aurreikusten denez, adjudikazioa udaberriaren amaieran egin nahi da, lanak nagusiki udan egin ahal izateko, garai hori baita egokiena bide zoruetan lanak egiteko.

Foru Aldundiak 377.000 euro baino gehiago bideratu ditu Arabako baliabide turistikoak berritzeko

Kuadrillentzako eta udalentsako laguntza deialdien bidez banatuko du dirua

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailak 377.000 euro baino gehiago bideratuko ditu aurten Arabako baliabide turistikoak eta azpiegiturak berritzeko, lurralde historikoko udalentsako eta kuadrillentzako laguntza lerro baten bidez. Helburua da Arabak bidaiarien eskura jartzen dituen turismo zerbitzuak eta esperientziak hobetzea, eta, horrela, probintzia kalitatezko helmuga jasangarri eta irisgarri gisa finkatzea.

Foru Gobernu Kontseiluak bi laguntza lerro horien deialdia onetsi du gaur. Guztira 377.264 euroko aurrekontu zuzkidura du deialdiak, Arabako toki erakundeen inbertsio proiektuak finantzatzeko, lehendik dauden baliabide turistikoak hobetu eta turismo azpiegitura berriak sortu ahal izateko. Deialdiaren oinarriek diruz lagundu daitezkeen zazpi inbertsio mota hauek ezartzen dituzte:

1. Irisgarritasun turistikoa hobetzea: kanpotik iristea eta barruko mugikortasuna errazten duten obrak; ikusmen, entzumen edo ukimen orientazioko panelak; zerbitzuen informazioa braille sisteman; desgaitasuna duten pertsonen informazioa eskuratzea ahalbidetzen dieten web teknologiak; Joëlette aulkiak eta itsuak eta ikusmen urrikoak gidatzeko barra bideragarriak erostea ...
2. Jarduera turistikoak sortzea, handitzea eta dibertsifikatzea: helburu turistikoetarako alokatzeko bizikletak; helburu turistikoetarako auto eta autobus elektrikoak; behaketa astronomikorako eta animalien behaketarako teleskopioak; erabilera turistikoko instalazioak egokitzeko obrak; turismo informazioko panelak, seinaleak eta/edo euskarriak, eta baliabideetan inpaktua murrizten duten aparkalekuak.
3. Turismo baliabideen eta/edo ondare historikoaren berreraikitze birtuala, bidaiariek ibilbide birtualak egin ahal izan ditzaten beren gailu mugikorrarekin, PCarekin eta abarrekin murgiltze esperientzia baten bidez.
4. Energia eraginkortasuna hobetzeko jarduketak, produktu eta zerbitzu turistikoen eskaintzari lotuta, karbonoak eragindako kutsadura mugatzeko eta energia berriztagarrietarako trantsizioa sustatzeko. Besteak beste, ibilgailu elektrikoentzako karga puntuak instalatzea eta eraikinen birgaitze jasangarriko jarduketak sartzen dira.
5. Donejakue Bideko eta Inaziotar Bideko erromesei arreta emateko azpiegiturak hobetzea, dagoeneko badaudenak konpontzeko, handitzeko edo eraberritzeko; bai eta Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidean (GR38) eta Vasco-Navarro Bide Berdean zerbitzuak eta ekipamenduak ipintzeko egiten diren inbertsioen gastuak.
6. Bisitariak hartzeko eraikinak edo informazio turistikoa emateko azpiegiturak konpontzea, handitzea eta haien mantentze-lanak egitea edo eraberritzea.

7. Nomada digitalen proiekturako guneak gaitzea (BuleGO!): coworking guneak, altzari ergonomikoak erostea, argiztapen sistemak, inprimagailuak...

Hautatzeko eta baloratzeko irizpideei dagokienez, oinarriek lehentasuna ematen diete irisgarritasuna hobetzeko inbertsioei eta turismo jarduera berriak sortzekoei, proposamenen kalitateari eta berrikuntzari. Dirulaguntzaren zenbatekoa inbertsioaren aurrekontuaren % 80 izango da, 48.000 euroko mugarekin kuadrilletarako, 28.000 euroko mugarekin 20.000 biztanletik gorako udaletarako eta 22.000 euroko mugarekin gainerako udaletarako.

Eskaerak aurkezteko epea laster hasiko da, deialdia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu ondoren, eta 2025eko apirilaren 11n bukatuko da.

Foru Aldundiak ur-baliabideen kudeaketa eraginkorra bultzatzen du 2025erako laguntza-deialdi berri batekin

Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluek ur-baliabideak kudeatzeko 2025eko laguntzen deialdia onartu du gaur. Neurri horien bidez, lurraldeko ur-baliabideen kudeaketa optimizatu nahi da, eraginkortasuna eta iraunkortasuna sustatuz.

Berrikuntza gisa, jarduera bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gehieneko inbertsioaren zenbatekoa 220.000 eurokoa da, erredakzio-proiektuetarako izan ezik, horiek muga horretatik salbuetsita egongo baitira, eta eskatzaile bakoitzeko gehieneko jarduera-kopurua bi izango da, eta horien artean lehentasuna zehaztu beharko da.

Orain arte bezala, proiektuak aukeratzekoan honako alderdi hauek baloratuko dira: ura aurrezteak, azalera, modernizazio-intentsitatea eta ingurumen-ekarpena.

Programa honetarako 750.000 euroko aurrekontua dago gordeta. 250.000 euro emango dira 2025. urterako, eta 500.000 euro 2026. urterako.

Nekazaritzako foru diputatu Noemí Aguirre Quintanak nabarmendu duenez, "aldaketa horiek baliabide hidrikoen kudeaketan eraginkortasun handiagoa bilatzen dute, sektorearen benetako beharrei erantzunez eta inbertsio iraunkorrak eta arduratsuak sustatuz".